

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko martxoaren 15a. VIII. urtea. 2.192. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Ahozkotasunari lotutako kultur adierazpenak, Euskaraeneako ardatz

Ostiralean hasiko da Tolosan bigarren aldiz antolatzen den euskararen aldeko ekimena; apirilaren 15a bitarte ekitaldi ugari izango dira 'Ahoz, hari eta ari' lelopean

Euskaraenea hasteko, Aitzolen testuen irakurketa saioa egingo dute 17:00etatik 20:00etara; Tolosako kaleetan ere entzun ahal izango da, megafonia bidez 03



1998. urtean antolatu zuten lehen aldiz, Euskaraenea. Jon Sarasua bertsolariaren bertso batzuetan oinarritu ziren izena aukeratzeko. I. URKIZU

Bonbereneak eraikinaren inguruko jarrera argitzeko eskatu dio udalari

Tolosako San Estebango proiektua ez dator bat gazteen «etxebizitza eredu sozialarekin» 03

Bengoetxeak bi tantogatik ez du lortu finalerdietarako txartela

Olaetxea lizartzarra eta Olazabal aresoarra Bigarren Mailako txapelketako finalerdietan izango dira 07

Prades eta Angulo izan dira eskualdeko txirrindulari proben irabazleak

Eduard Prades Aiztondo Klasikoan gailendu da, eta Antonio Angulo, Insalus Sarian 06

Inauterietako Argazki lehiaketa

- Saria: Denak tabernan 4 pertsonentzako afaria
- Argazkiak nora bidali: argazkiak@tolosaldeko-hitza.info harpidedun kodea jarri behar da mezuan, harpidedun bakoitzak gehienez bi argazki bidali ditzake.
- Noiz bidali: Martxoaren 4tik matxoaren 18a bitartean.
- Sariduna: Martxoak 22eko alean argitaratuko dugu.

Parte hartuko duen argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan www.tolosa.hitza.info webgunean!

Promozio berria

IBARRA

195.000 €

Sustatzailea: **Epergain**
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du: **Aburuza**
Eraikuntzak S.A.

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Parasito aniztasuna



Bioaniztasunetik
Jon Ander Galarraga

Biologoa

Parasito mota ugari daude gurean, gehienak oso txikiak dira; beste batzuk ordea, oso handiak dira, eta 40 urtera iritsi daitezke. Azken hauei seme-alabak deitzen zaie. Broimak alde batera utzita, gure egunerokoan milioika parasitoei bizi gara, eta Tolosaldean eta Leitzaldean alarma sozial bat sortu nahi ez dudana arren, parasito guztiak dira kaltegarriak.

Definizioz, parasito bat beste izaki bizidun baten kontura bizi den biziduna da. Baina parasitoei ez diote beste izaki bizidunari asteroko ordainsaria kentzen, parasitoei elikagaiak kentzen dituzte. Elikagaiak besteari modu merke batean kentzeko metodo bat, odola xurgatzea da, izan ere, odolean doaz gure gorputzeko elikagai guztiak liserituta eta oxigenoz beteta. Sistema hau erabiltzen dute ezagunenak diren gure parasitoei, hala nola, zorriek, eltxoek...

Hala ere, badaude ziztada soil bat baino gehiagoko kaltea eragiten duten parasito ez oso atseginak. Hauetatik ezagunena tenia edo *solitaria* bezala ezagutzen duguna da. Zizare baten antza duen arren, izaki hau ez da zizareen familiakoa, zizare-lauak diren animalia taldekoak dira, izaina talde berekoak.

Eltxo batek ez bezala, teniak ez digu odola xurgatzen, geure hesteetan egoten da, eta guk jan eta liseritutako janaria xurgatzen du. Zenbait entzuna diot tenia gure ezterrian egoten dela ahoa irekita, geuk jaten dugun guztia jaten. Teniak ez du ahorik, gure hesteetan doazen elikagai xehe-

tuak bere azal bereziaren bidez xurgatzen baititu.

Jada beldurtu baldin bazara, badago zer esanik teniari buruz. Gure hesteei gogor itsasten zaie buru aldean duen bentosa batekin, buru hau askatu arte ez gara teniaz libratuko. Gainera, solitaria honek isatsetik bere goputz zatiak askatzen ditu eta gorputz zati hauek beste solitariak sor daitezke. Bai... beldurrezko pelikula bat ematen du! Gorputz zati hauek kakaren bidez botatzen ditugu, bai... beldurrezko pelikula batean zaudete!

Gertu ditugun parasitoei jarraituz, bada bat ziur zuk eta nik oso gertu duguna eta ohartu ez garena: betileetako zizare txikiez ari naiz. Sarritan giza begietan, betileen artean, zizare gardenak bizi dira, gure begietatik aska-

Betileen artean zizare gardenak bizi dira, eta errazagoa da haiekin bizitzea, kentzea baino

tzen diren azal, malko eta gantz hondarretaz elikatzen. Noski, hauek ezaba daitezke, baina nik uste dut beraiekin bizitzea errazagoa dela, beraiek ezabatzen hastea baino.

Eta bukatzeko beste parasito famatu batekin amaituko dut, *anisakis* deritzonekin. Zizare hau normalean ez da gure parasittoa, baina arrainen portzentaia handi batek izan ohi du. Euskaldunen artean, alergiarik ez badiogu behintzat, ez du kalterik egiten, izan ere nire amonak dion bezala arraina "ondo eginda" jan behar da, eta gure tradizio honek *anisakisa* erabat ezabatzen du. Japonian tradizioz arraina gordirik jaten dute, eta hauek arriskua dute anisakiaz kutsatzeko.

Eta parasitoez gehiago jakin nahi baduzue betiko lekuan egongonaiz:

<http://bioaniztasunetik.blogspot.com> atarian, www.facebook.com webgunean eta bioaniztasunetik@hotmail.com helbidean.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Larrea auzoan etxebizitza berria alokatzen da. Sukaldea, jangela, egongela, gela bat, bainugela bat eta trasteleku. 600 euro hilero. Gara je itxiari nahi izanez gero 650 euro. 669 82 70 96.

GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfonbrak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaude. Interesa dutenek dei dezate-lena inongo konpromisorik gabe 638 94 96 04 telefonora (Gurutze).

Osasun Publikoaren aldeko batzarra izango da gaur



Herritar asko bertaratu zen aurreko bilerara. I. GARCIA

I. Urkizu Tolosa

Gaur iluntzean Osasun Publikoaren aldeko taldearen bilera izango da kultur etxean, 20:00etatik aurrera. Bertan, eskualdeko osasun publikoaren gaia izango dute hizpide.

Pasa den otsailaren 20an bildu ziren lehenengoz gai honen inguruan aritzeko, eta gaurkoa lehenengo hartara bertaratu zen herritar kopuruaren ondorioz antolatu dutela diote arduradunek. Izan ere, Tolosako espezialitateen ambulatorioa ixteko dauden aurreikuspenak direla eta, kezkaririk agertu ziren hainbat herritar otsailaren 20ko bilera hartara.

Modu honetara, lehenengo bi-

leran Tolosaldeko koordinakundea sortzeaz erabaki zuten bertaraturiko elkarte, sindikatu, alderdi politiko, norbanako nahiz beste hainbat sektoretako ordezkariak.

Agiria sortzeko asmoa

Gaur iluntzean egingo duten bilera, aurrekoan landutako gaiak hartu, eta horien inguruan jardun ondoren, manifestu edo agiribat egingo dute bertaraten diren eragile nahiz norbanakoei, anbulatorioaren auziaren inguruan. Gainera, bilerako partaideei egozia iruditzen bazaie behintzat, batzorde desberdinak sortuko dituzte, eskualde mailan lanean jarraitzeko.

• tolosa@hitza.info

Gutunak

Tolosako biztanle guztiei

Aurten guri tokatu zaigu. Eta datorren urtean...?

Inauterietan Amarozko karrozian parte hartzen dugunok tolosarre publikokoi adierazi nahi diegu zer gertatu zitzaigun Astelenita egunean. 25 urtetik gora daramatzagu Inauterietako astelehen egunean karrozarekin Tolosako kaleetatik barrena ibiltzen, beti festa egun alai eta atsegina pasatzeko asmoarekin, eta alaitasun eta umorea transmititzen gure ingurura hurbiltzen diren guztiei.

Aurten, urtero bezala, karroza zezen plazaren parean utzi genuen, eta bazkaltzetik bueltatu ginenean, 15en bat gazterekin (15-17 urtekoak) topo egin genuen. Karroza gainera igota, dena txikiu ziguten. Egun eta ordu asko kostatako lana txiki-eginda. Gure parodia koskorra (Txanogorritxu, otsoa eta amona), eta dantza egiten jarraitzeko modurik gabe utzi ziguten.

Azalpenak eskatu genizkien, baina gazte haiek lotsagabeberiekin erantzun ziguten, oso jaltara inongo konpromisorik gabe 638 94 96 04 telefonora (Gurutze).

giten zigun moduan. Bitartean, gazte haiek behin eta berriro esaten ziguten ea zer egin behar genien, 15 urte besterik ez zituztela eta!

Eskerrak udaltzainak agertu zirela (laguntza eskatu genien), eta ertzainak ere han zirela. Hori esker ekidin ahal izan ziren gertaera larriagoak, gero denok damutzeakoak izan zitezkeenak.

Egoera tamalgarri hori eta gero, eta Oria hotelaren aurrean gure emanaldia hasi baino lehen, jendeari gertatutakoa esan, eta Tolosako Inauterietan errespetu gehixeago eskatzen ari ginela, gazte kuadrilla batzuk sartu zitzaizkigun tartean, eta ez ziguten dantzan egiten utzi. Eta ez zen behin bakarrik izan. Aurreraxeago, San Franzisko pasealekuan, berriro gazte koadrilla hauen jarrera oldarkorra, eta beren irainak pairatu behar izan genituen. Gauzak horrela, ez genuen beste erremediorik izan kalea eta gure emanaldia bertan behera uztea baino, "justizia gure kabuz egiten" hasi baino lehen, amorru handiarekin, eta ezintasunarekin. Gainera, une hartan, hari gabeko mikrofono bat lapurtu zi-

Korrika batzordearen bilera egingo dute Lizardi elkartearen

Apirilaren 13an pasako da Korrika eskualdetik, eta ibilbidea eta ordutegia izango dira bilerako gai nagusiak

I. Urkizu

Gero eta gutxiago geratzen da Korrika 17 Trebiñutik atera dadin, Euskal Herri osoan eskuz esku lekukoa pasa, eta azkenik Donostia iristeko. Hau dela eta, eskualdeko eragileekin Korrika batzordea izango da gaur, Tolosako Lizardi elkartearen, 18:30ean.

Apirilaren 13an pasako da Korrika eskualdetik, goizean goiz, egunsentiarekin batera. Adunara 06:15ak aldera iritsiko dira euskararen aldeko oihu eta pausoko, eta Zizurkil Goitik igaro eta gero, Villabonara iritsiko da 06:45ak aldean. Hemendik Irura eta Anoetara joango da aurtengo ibilbidea, eta Tolosara goizeko 07:25ak aldera iritsiko da. Ibarran sartu eta berriro ere Tolosatik pasa ondoren, Alegia aldera abiatuko da.

guten. Ondorioa hauxe izan zen: urtero bezala Astelenita egunean disfrutatzea atera ginela, eta karrozako partaide guztioi oso haserre, suminduta eta erabat ernegatuta bukatu ginela eguna. Latza, festa egun bat horrela bukatzea. Baina bestetik ere oso kezkatuta gaude. Izan ere, gure Inauterietan zuten suntsitu diktadurak berak ere, baina horrela jarraituz gero, eta ez badugu zerbaitegiten, hori hala izan ez dadin, gertatuko da gaztetxo talde hauek, beren kulturarik eza eta denen gainetik pasa, puskatu eta gogaitu behar horrekin, suntsituko dutela gure Inauteria.

Horren aurrean eta jakinik arazo hau zaila dela, gustatuko litzazuke denon artean hausnarketa bat egitea gai honen inguruan, zuekin eta konpartsa, karroza, txaranga eta gainerakoekin, hau da, azken finean festaren muinarekin. Dagoeneko Udaleko Jai Batzordeari bileradialdia egiteko eskaera egin diogu, hain zuzen ere, gai hau aztertzeko.

GORA INAUTERIAK
■ **Amarozko karrozako partaideak.**

Ostiral honetan hasiko da aurtengo Euskaraenea

Besteak beste, ahozkotasuna landuko duten ekitaldiez gozatu ahal izango da, apirilaren 15era bitarte

Itzea Urkizu

Aurkeztu dute jada, hainbat eragileren artean, aurtengo Euskaraenea ekimena, eta baita honen baitako egitaraua ere.

1998an Tolosan ospatu zen ikastolen aldeko Kilometroak jaia, eta egun hartarako Jon Sarasua bertsolariak egin zituen bertsoetan «...euskaraenera gonbidatu zaite...» aipatzen zen. Hau egokia irudituta, Euskaraenea izena jarri zioten antolatzaileek ekimenari, eta jada bigarren aldiz antolatuko dute.

Aurten bi helburu nagusirekin agertu dira arduradunak. Lehenengo eta behin, Mintzola Fundazioa Tolosako hiru ikastetxeetan DBHko ikasleen artean egiten ari den ikerketan oinarritu dira. Ikerketa praktikoa da, eta ahozko erabilera hobetzeko bidean ari direnez, Euskaraeneak ahozkotasunari loturiko euskarazko kultur adierazpenak bideratu ditu Tolosan, martxoaren 18an hasita, apirilaren 15era bitarte.

Bigarren jomuga bat ere badute, ordea, epe luzeagorako: hizkuntzaren normalizazioari eta euskarazko kulturari bultzada eman nahi diote, eta hau guztion artean izatea nahi dute.

Aurtengo leloari dagokionez, berriz, Jesus Peñagarikanok egin du: *Ahoz, hari eta ari*. Mendeetan zehar ahozkoa bizirik irauteko tresna izan den aldetik, gaur egun ere hari berari tira nahi diote antolatzaileek.



Joseba Antxustegik egin du Euskaraeneako kartela. HITZA

↓ Euskaraenea 2011, egitaraua

MARTXOAK 18

■ **17:00-20:00.** Kultur etxean Aitzolen testuen irakurketa saioa. Tolosako kaleetan entzungo da irakurketa megafonia bidez.

MARTXOAK 25

■ **20:30.** Topic-en Joseba Tapiaren kantaldia. Bere azken diska aurkeztuko du.

MARTXOAK 26

■ **12:00.** Tolosa Kantari udal txistulari bandak lagunduta. Ondoren kantu bazkaria izango da Oargi elkartearen. Txartelek

20euroko prezioa dute eta Xirimiri kafetegian, Elurra tabernan, Babes tabernan eta Amaroako Ekaitz tabernan daude eskuragarri.

MARTXOAK 28

■ **19:30.** Korrika 17ren aurkezpena Lizardi elkartearen.

MARTXOAK 31

■ **19:00.** Korrika 17ren dokumentala: *Euskaltzaindia eta euskalduntze-alfabetatzea*.

APIRILAK 2

■ **11:30.** *Zazpi astoren gainean* bertso ikuskizuna. Jon Martin, Iñaki Apalategi eta Larreategi anaia trikititxa jotzen.

APIRILAK 6

■ **19:30.** Kultur etxean hitzaldia Mintzolako Maitane Aiertza eta Inaxio Usarralderen eskutik: *Ahozkotasuna irakaskuntzan*.

APIRILAK 8

■ **20:30.** Koldo Amestoyren *Biribilketa* emanaldia.

APIRILAK 9

■ **11:30.** Zerkausion, Ferian ber-

tsotan. Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña.

■ **17:00-18:30.** Karaokea umeentzat Zerkausion

APIRILAK 13

■ **07:30ak aldera.** KORRIKA pasako da Tolosatik. Aduna, Villabona, Anoeta eta Iruratik Tolosara iritsiko da eta ondoren Ibarrara sartu ondoren, Tolosatik Alegia aldera joango da.

APIRILAK 15

■ **20:30.** Kultur Etxean antzerkia izango da: *Xentimorik gabe...* Antzezleak Ramon Agirre eta Inazio Tolosa izango dira.

Bonbereneak bere etorkizuna ezagutu nahi du

Tolosako Udalak auzi honetan «gardentasunik gabe» jokatu duela salatu du lantaldeak

Itzea Urkizu

Bonbereneak, *Bonberenea Sutan* ekimenaren baitan, Tolosako Udalaren San Esteban auzoko hirigintza proiektuarekin desadostasuna adierazi nahi izan du azken egunotan. «Oinarrian, Bonberenea errespetatzen ez duen hirigintza proiektu baten aurrean» daudelako atera dute aldarria, eta etxea gaur egun dagoen leku berean mantentzea defendatzen dute.

Lehenik eta behin, zonalderako udalak aukeraturiko hirigin-

tza eredia «Bonbereneak defendatzen duen etxebizitza eredu sozialarekin inondik ere bat ez dator», eta Tolosak «harrotasunez» erakusten duen hiri berdeak modu honetara baliorik ez lukeela diote.

Bestalde, udalak Bonbereneako etxearen egoera argitzeko garraian erakutsi duen «pasibotasuna» salatzeraz datoz. Izan ere, Bonbereneako taldeak «oraindik ez daki gaur arte egindako lanak zein etorkizun izango duen». Honen harira, Bonbereneako etxea botatzeak «bai Tolosan, bai Euskal Herrian» kulturaren arloan sekulako galera ekarriko lukeela nabarmendu nahi dute arduradunek.


Herritarren parte-hartzea «bigarren mailara zokoratua» izan dela ere salatu dute Bonbereneakoek, «udalak ez baititu aintzat

hartu» Bonbereneako ekintzen garapenean era aktiboan parte hartzen duten herritarrak. Bide beretik, gaur egun Tolosako gazteek okupatutako eta autogestionatutako leku batean era boluminarioan jarduerak anitzak burutzeko duten leku bakarra Bonberenea dela argi utzi nahi dute, horrek duen garrantzia azpimarratuz: «nolabaiteko eskola bilakatu da Bonberenea, musika, diseinu grafikoa nahiz bideogintza bezalako alorretan trebatzeko aukera eskainiz».

Bertako lantaldeaz gain, bestalde, San Estebango, eta oro har Tolosako bizilagunek Bonberenearen proposamenari babes osoa eskaini diotela adierazi nahi dute, eta «horren lekuko dira taldeak antolatutako San Joanetako kalejira jendetsua nahiz sinadura bilketa».

Egoera honen aurrean, Bonbereneako lantaldean «zalantzak eta ziurgabetasuna» nagusi dira, eta Bonberenearen errausketa berehalakoa ez bada ere, «Jokin Bildarratzek eta udalak auzi honen inguruan, epe laburrean, era-


bakirik hartu ezean, ondorioak gaindiezinak» izan daitezkeela diote. Horrela beraz, Bonbereneak gardentasuna eskatu nahi izan dio udalari: «eraikinaren auziaren inguruan duen jarrera publiko egin dezaten nahi dugu».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Amasa-Villabona



BERTSOA MINTZAGAI

Lanurbatean laugarrenez, Bertsoalmintza ekimena ospatu zuen Bertsozale Elkartek, Villabonako Gurea aretoan. Goizean Andoni Egaña, Amalia Vazquez, Eric Dicharry, Ibon Arizabalaga, Jon Martin, Estibou Ezagire, Jon Ansa, Oier Araolaza eta Fredi Palaren hitzaldiak izan ziren. Ondoren, Behar Zera elkartearen bazkaldu zuten, eta 17:00etatik 19:00etara, bertso saio esperimentalean parte hartu zuten hainbat bertsolarik. BERNARDU

Tolosa



PIÑATA IGANDEAN MUSIKA

Inauterien ondorengo lehen igandea izaten da Piñata Igandea. Zazpigarren urtez, Tolosako Musika Eskolako ikasle talde bat Aido Zahareko kaleetara ateratzen, Inauterien bihamaruna zuen igandea pixka bat alaitzeko asmoz. SAHAR

Alegia



ELKARTASUNA ADIERAZTEKO MARGOAK

Alegian Sahara eta Palestinari elkartasuna adierazteko hainbat ekitaldi egin zituzten, lanurbatean. Goizean hormakudi bat margotzen ari ziren zubi eta eskolaren artean dagoen horman. Arratsaldean, Biladi Hadi brigada kulturalako hainbat kideek hitzaldi bat eman zuten; bertan Palestinan bizitutakoaren berri eman zuten. Gausean, Arrazkia eta Kaskezur taldeek kontzertuak eskaini zituzten. Gasteizen, Anarrazkia taldeak Biladi Hadi brigadarekin batera izan zen Palestinan, eta Rim Banna eta DAM taldeekin batera abesti bat grabatu zuten. BERNARDU

Amasa-Villabona



IKASLEEN MENDIKO LEHIA

Igandean, 24. Eskolarteko Mendi Lehiaketaren barruan, Oria eskualdeko ibilbide neurtua izan zen, Villabonan. Bi ibilbide egin zituzten, eta gutxiira 15 kasketezko 326 ikasleek parte hartu zuten. Bilakidiri neurtu honetan. MTA

Leitza-Anoeta



EMAKUMEAK NAGUSI ASTEBURUAN

Emakumearen Eguna asteartean izan bazen ere, hainbat herritan asteburuan izan dituzte ospakizunak. Leitzaan, Emakumeek prekaritateari plan-tz/lelopean ekitaldi ugari antolatu zituzten larunbatean. Hitzaldiak, bazkaria eta jokoak izan zituzten egun guztian zehar. Anoetan, nesken eta emakumeen arteko Xake Topaketak egin zuten. Igandean, Bertan 33 partaide izan ziren. BERNARDU

Hartu aisia BERRIekin

Egin harpidedun eta jaso 2 lagunentzako **ERLAXATZEKO BONUA OPARI**

ECZAGARRIAK:

- Talozterapeia zirkuitus
- Erlaxatze masajea
- Isardet ansozaledeko ostisi egundire enabi datate

Hazremantarako:

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Eskuratu autoa mantentzeko zerbitzua 30 euro merkeago

Jaso **martxoaren 18an BERRIekin** etorriko den **kartilla**, eta bete hurrengo egunetan argitaratuko ditugun kupoiekin **BERRIaren irakurle guztientzako eskaintza**.

Harpidedun bazara, eskuratu martxoaren 17an BERRIekin banatuko dugun katalogoan.

WIPAS BILBO
 Sabino Añaso etorbidea, 30
 Tel.: 94-439 31 21

WIPAS BONGOSTIA
 Gatzara Nagusia, 30-100
 Tel.: 945-27 91 97

WIPAS BERRIA
 Nafarroa etorbidea - Sankoaia
 Tel.: 948-799 99 01
 Zargapedia etorbidea, 99
 Tel.: 948-24 56 98

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

www.tosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago ezagutu gure webgunere berriak

www.ibaraldea.hitza.info • www.alegiadea.hitza.info • www.anoetaldea.hitza.info • www.villabona-aiztondo.hitza.info • www.leitzaldeko.hitza.info • www.tolosa.hitza.info

Kirolak >

↓ **Emaitzak****PILOTA****BINAKAKO TXAPELKETA**

Lehen maila	
Gonzalez-Laskurain	22
Saralegi-Apraiz	15
Xala-Barriola	22
Bengoetxea VI-Albisu	8

Bigarren maila

Lemuno-Oteiza	16
Jaunarena-Larrinaga	22
Olaetxea-Otxandorena	22
Idoate-Arruti	14

BERRIA TXAPELKETA**Kadeteak**

Adiskide	3
Zazpi Iturri	22
Jubenilak	
Adiskide	10
Zazpi Iturri	22
Nagusiak	
Adiskide	10
Zazpi Iturri	22

SAGARDOAREN TXAPELKETA

Zeberio II.a -Barrenetxea IV.a	30
Urriza-Zubizarreta	40

SASKIBALOIA**LEHEN MAILA**

Hamargarren jardunaldia	
Take Bide Bide Ibiza	72
Urdaneta	59

SOKATIRA**EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA****Gizonezkoak, 600 kilotan, finala**

1. Abadiño (6 puntu)
2. Ibarra (5 puntu)
3. Sokarri (4 puntu)

Emakumezkoak, 500 kilotan, bigarren saioa

1. Badaiotz/Sakana
3. Ibarra

ARETO FUTBOLA**NAZIONAL A MAILA**

22. jardunaldia	
Juventud del Círculo	5
Lauburu	6

NAZIONAL B MAILA

22. jardunaldia	
Laskorain Ikastola	3
Jarrileros	2
Transportes Lakunza	4
Concepto-Createch	7
Cerámicas Nogales Zarautz	3
Irish Pub Sheperd 's	2

EUSKAL LIGA

22. jardunaldia	
Tolosa Hirukide	2
Inter Eder - Kafetegia	4

FUTBOLA**ERREGIONAL OHOREZKOA**

25. jardunaldia	
Tolosa	0
Hernani	0

ERREGIONAL PREFERENTEA

23. jardunaldia	
Tolosa 'B'	2
Aretxabaleta 'B'	1
Intxurre	2
Mutriku	1

Eduard Prades kataluniarrak irabazi du Aiztondo Klasikoa

Asteburuko beste txirrindulari proban, Insalus Sarian, Antonio Angulok lortu du garaipena

Erredakzioa

Afizionatuen mailako bi txirrindularitza proba jokatu dira asteburuan eskualdean. Aiztondo Klasikoan Eduard Prades kataluniarra izan da garaile eta Lizartzako XXIII. Insalus Sarian Antonio Angulok lortu du garaipena.

Adunan hasi eta Villabonan bukatu zen Aiztondo Klasikoa. Sarasola mendatearen jaitsieran erabaki zen. Tarte hori aprobetxatu zuen Pradesek (Tarragona taldea) iheslarien artetik alde egin eta Villabonara segundo batzuen abantailarekin iristeko. 15 segundokoa izan zen lortu zuen tarterik handiena. Helmugan hiru segundo atera zizkion bigarrenari.



Aiztondo Klasikoan, tropela Villabonako kaleetan zehar. SARA GOMEZ



Antonio Angulo Insalus Sariko helmuga zeharkatzen. R. CALVO

Iaz, Prades bigarren izan zen, eta aurreko garaipena eskuratu ahal izan du. Bere atzetik Omar Fraile (Seguros Bilbao taldea) helmugaratu zen eta hirugarren David Gutierrez (Bidelan taldea) izan zen. Seguros Bilbao izan zen lehenengo taldeen sailkapenean.

Aiztondo Klasikoa Espainiako Koparentzako puntuagarria da. Probaren ondoren, Kopako lidera da Prades, 147 punturekin.

Angulo, esprintean

Insalus Saria esprintean erabaki zen Lizartzako helmugan. Kantabriako Cueva El Soplao taldeko Antonio Angulo izan zen iheslarien taldetxoaren arteko azkarrena. Bigarren, Naturgas Energiako Fernando Grijalbak egin zuen, eta hirugarrena Deba Barrena taldeko Eñaut Pagola izan zen. Cueva El Soplao taldeko Mario Gonzalezek mendiko saria eskuratu zuen. Guztira 14 taldetan banatutako 98 txirrindularik hartu zuten parte.

Ibarra taldekoak, «atsekabetuta»

I. Garcia Ibarra

Ibarra sokatira taldekoak «atsekabetuta» itzuli dira Gernikatik. Bertan jokatu dute 600 kiloko finala eta bigarren postua lortu badute ere, lehenengo merezi zutela uste dute. Abadiño taldearen aurka, bukaeran txapeladuna izango zena, jokaturako tiraldietako batean izan zen arazoa. Ibarra taldekoak irabazten ari ziren, eta hamar zentimetro falta zitzaizkien tiraldia eramateko. Baina une horretan epaileak falta adierazi zien Ibarra taldekoari, eta Abadiño koentzat izan zen tantoa.

Ibarra taldekoak adierazi dute, «ia irabazteko zaudenean ez dizute falta ematen. Tiraldi hori irabazi izan bagenu, guretzako

izango zen txapelketa». Ibarra taldekoak gaineratu dutenez, «oso kirol sakrifikatua da. Finala oso ona egin genuen. Beste taldekoek ez zuten espero horrela ariko ginenik. Epailearen erabaki horregatik zapora mingotsarekin itzuli gara».

Emakumezkoak 500 kilokoa

Emakumezkoen 500 kiloko txapelketan bigarren saioa izan zuten asteburuan, Gernikan. Hiru taldek parte hartzen dute lehiketa horretan. Badaiotz eta Sakana berdinduta gelditu ziren lehen postuan, tiraldi kopuru berdina irabazi baitzuten. Ibarra taldekoak hirugarren egin zuen. Hurrengo asteburuan hirugarren eta azken saioa izango dute.



Ibarra taldekoak tiraldi batean, Gernikan. HITZA



Tolosaldea Triatloi Taldeko partaideak. HITZA

Euskadiko txapela, neguko triatloian

Erredakzioa

Mahala-Tolosaldeko Triatloi Taldeko hamazazpi kidek parte hartu zuten igandean Izabako neguko triatloian. Emaitza bikainak lortu zituzten, baina guztien gaiterik bat azpimarratu beharrek: Ion Artutxa, Aitor Regillaga eta Igor Aranburuk errelebukako proba irabazi zuten, Euskadiko Txapelketan eskuratu zuten. Lehenengo lortu du TTTk titulu hori.

Hirukote txapeladunaz gain beste bi talde atera ziren TTTtik. Proban laugarren egin zuten Axier Urrestarazuk, Alar Sevillanok eta Ion Marinek, Euskadiko Txapelketan bigarren egin zuten. Igor Oterok, Asier Saezek eta Jonander Aizpuruak bederatzigarren

egin zuten proban, eta seigarren Euskadiko Txapelketan.

Banakako proban, Unai Aizpuru 25.a izan zen, Aitor Elduainen 37.a, Iñaki Insausti 39.a, Joxe Mari Garmendia 44.a (hirugarren Euskadiko Beterano II sailkapenean), Jose Joaquin Osinaga 47.a, Yon Gonzalez 53.a, eta Jon Etxetxipia 60.a. Taldeko Euskadiko Txapelketan hirugarren egin zuten TTTk.

Eskualdeko beste bi triatloiarik ere parte hartu zuten beste talde batzuekin Izabako lasterketan. Egoitz Zalakain tolosarrak proban hirugarren egin zuen, eta Euskadiko Txapelketan bigarren. Ainhoa Mendia billanontarrak proban zazpigarren, eta txapelketan bigarren egin zuen.

Oinatz Bengoetxea, finalerdietatik kanpo

Olaetxea lizartzarra eta Olazabal aresoarra Bigarren Mailako Txapelketaren finalerdietan izango dira

Erredakzioa

Eskuz Binakako Txapelketa finalerdietara iritsi da, baina bertan ez da izango Oinatz Bengoetxea leitzarra. Ligaxkako azken partida Albisuren jokatu zuen Xala eta Barriolaren aurka. Bengoetxak ez zuen irabazi beharrik, nahikoa zuen hamar tanto egiteare-

kin. Baina zortzian geratu ziren bera eta Albisu, eta Irujo eta Merino II.a sailkatu dira finalerdietarako. Partida kopuru berdina irabazi dute bi bikoteek, baina Bengoetxearen kasuan, jasotako eta egindako tanto kopuruen alde handiagoa izan da, eta horrek utzi du txapelketatik kanpo.

Leitzarrak herrikidea, Barriola, eta partida bikaina jokatu zuen Xala izan zituen aurrean. Hauek beraien partida jokatu zuten. Dagoeneko sailkatuta zeuden finalerdietarako, baina Eibarren jokatuak partidan erakutsi zuten zergatik lortu duten ligaxkako lehen postua. Xala eta

Barriolak hiru bikote izango dituzte aurkari txapela janzteko bidean: Olaizola II.a-Begino, Gonzalez-Laskurain eta Irujo-Merino II.a.

Bigarren mailako bi pilotari

Eskualdeko bi pilotarik egin dute aurrera Bigarren Mailako Txapelketan. Azken jardunaldia uzten asteburuko eta finalerdietan ariko dira lua bikoteak erabaki dira. Horien artean, Olaetxea lizartzarrek Albisuren eta Olazabal aresoarrak Galartzarekin lortu dute sailkapena. Jaunarena leitzarrak zarpigarren egin du eta txapelketatik kanpo geratu da.

Marta Alonsok bigarren egin du Espainiakoan

Erredakzioa Tolosa

Tolosaldeko igerilariak bikain aritu dira Palman (Herrialde Katalanak) izandako Espainiako Txapelketako gazteen mailan. Tolosaldeko sei igerilari joan ziren, lau mutil eta bi neska, eta Tolosako Marta Alonsoren lana nabarmendu behar da. Izan ere, Espainiako txapelkunorde izatea lortu zuen tximeleta estiloko 50 eta 100eko probetan.

Alonsok, ere berean, estilo libreko 50 metroko proban 28:10, eta bizkarrez 1:08:24 egin zuen. 4x100 estiloko errelebuko proban tximeleta estiloan ere aritu zen.

Alonso, dena den, ez zen bakarririk joan Palmara, eta bere lantaldekoak ere fin aritu ziren. Josu Carrerak 200 estiloetan 2:14:30 egin zuen, 100 librean 54:23, tximeleta 100 metrokoan 59:73, eta 400 estiloetan 4:52:25. Azken proba honetan zarpigarren egin zuen. Zuriñe Del Pozo, bere aldetik, bizkarreko 50, 100 eta 200 probe-

tan aritu zen. Hurrenez hurren, emaitza hauek izan zituen: 34:05, 01:11:93, eta 2:38:49. Era berean, 4x100 estilo proban bizkarreko errelebu aritu zen.

Ñaiki Carrerak 4:28:74 egin zuen estilo libreko 400 metrokoan, 2:01:44 estilo libreko 200 metrokoan, eta 4:55:28 400 estilokoan, hamargarren postua eskuratu. Olaia Cuadrado 2:36:55 egin zuen 200 estilokoan, eta bizkarreko 50, 100 eta 200 metrokoetan 34:14, 01:12:47, eta 2:31:57 egin zuen, hurrenez hurren. 4x100 estilokoan ere aritu zen, bular igeriketa eran.

Amaitzeko, Irati Ibarbia 4x100 proban crawl eran aritu zen.

Era berean, Ion Ander Perez ere aipatu dute Tolosaldeko igeriketa taldeko arduradunek, izan ere, estilo libreko 200 metroko lasterketan 2:00:1 egin eta gero Sabadellera (Herrialde Katalanak) joango da Espainiako Txapelketako haurren mailan parte hartzeko.



Palmarak joan ziren Tolosaldeko sei igerilariak. HITZA

Zazpi Iturrik 3-0 irabazi du Berria Txapelketan

I. Garcia Amezketa

Amezketako Zazpi Iturri elkarteak Berria Txapelketan finalerdietarako sailkatu da. Galdakaoko Adiskide elkartearen aurka hiru partidetan irabazi zuen, eta Irurtzun elkartearen aurka ariko da datorren igandean, Beotibarren, finalaren bila.

Xalton Zabala Zazpi Iturriko arduradunak dioenez, Altuna eta Irribarria kadeteek «oso maila ona» eman zuten. 3-2 irabazi zuten Adiskideko. Zabalak aurrelaria goraipatu du: «Jokin Altunak se-

kulako partida jokatu zuen. Hamasei tanto egin zituen eta ez zuen bat bera ere galdu. Aurkaria bere jokoan sartzea lortu zuen eta nahi izan zuen bezala jokatu zuen». Irribarria ere «oso ondo» aritu zela azaldu du prestatzaileak.

Kadeteetan lortutako emaitzak jubenilen partida baldintzatu zuen. Gainera, aurrelari titularrak falta zen, Elezkano, eta horrek abantaila eman zien Zazpi Iturriko. Gallurraldek eta Jakak partida txukuna egin zuten eta 10-22 irabazi zieten Galdakao-

koei. Zabalak gogora ekartzen duenez, «Jakak Larunberri eutsi zion, eta aurrelariari eraso eginez tantoak lortzen zituzten».

Aurreko bi emaitzekin kanporaketa irabazita zuten amezketarrek. Horrek eragina izan zuen Adiskideko pilotarien artean, eta nagusietan ere Zazpi Iturriko irabazi zuten. Ropon aurrelariaren ordez Arzelus aritu zen; bi atzelarik jokatu zuten, beraz, amezketarren aldetik. 10-22 irabazi zuten. Orain Irurtzun izango dute aurrez aurre, honek asteburuan Andoain kanporatu baitu.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



JOXIN UNANUE ALDALUR jauna

- Goian bego -

Zure garraio zerbitzuaren bidez, gurekin lana arduratsu eta umoretsu egin duzu Orain gogorra egiten zaigu gehiago ez zaitugula ikusiko onartzea Baina zure jatorrasuna gurekin geratzen da eta indarra emango digu. Eskerrik asko guztiagatik, Joxeini

Azkune Frutak, talde osoa

AZPETIA, 2011ko martxoaren 15a



JOXEPA BERAZA SARASOLA

(Juanito Irastorzen alarguna)

Amona, zerutik maitasunez

begiratu iguzu

eta erakutsi diguzun bidea

jarraitzen lagun iguztu.

Zure bilobak: Olatz eta Joseba Arano, Jon eta Eider Goenaga, Arantza; birloba: Inhar.

Haren arimaren alde, otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Alegiako SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan, gorpua bertan dela, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Alegian, 2011ko martxoaren 15a

Helbidea: San Juan kalea, 66.

Oharra: Gorputz beldu Tolosako ORIA TANATORIOAN egongo da, GAUR, ASTEARTEA, 18:30ak arte.

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



18°
11°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	16°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

HITZA-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Gaur Osasun Publiko-aren alde egiteko herri batzarra izango da 20:00etan kultur etxean.
- **Tolosa.** Hirukide eskolak jakinarazi duenez, ES299 Kristau Eskola zentroak ireki du Cambridge unibertsitatearen ekaineko azterketen deialdirako matrikula epea. Hirukiden apirilaren 6a arte egin daiteke matrikula.
- **Tolosa.** EGBko lehenengo promozioko 8. maila Jesusen Alaben ikastetxean egin zutenek (1974-1975) maiatzaren 14an ikaskideen bazkaria izango dute. Bazkaria Bide Bide jatetxean izango da eta izena apirilaren 30a baino lehen eman behar da eta 50 euro sartu 2101 0081 19 0012775102 kontuan. Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko deitu 649 16 30 53 telefono zenbakira.

HITZALDIK

- **Tolosa.** Etxi, hilak 17, Patxi Izagirre psikologoak *Dolua eta Galerak* gaiaren inguruko hitzaldia eskainiko du Samaniego ikastetxeko Haur Hezkuntzako eraikinean. Hitzaldia gazteleraz izango da 17:30etik 19:00etara eta familia, hezitzaile eta irakasleei zuzendutakoa da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Arribe.** Garmendia A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



MOJAK ETA ELIZA NONAHI

Inauterietako Argazki Lehiaketan parte hartzeko bi argazki hauek ere iritsi dira HITZAra. Mojak eta eliza, horixe da Tolosa Inauterietan mozzorrotzeko aukeratutako gaia. Gogoratu harpidedun bakoitzak bi argazki bidali ditzakela argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbidera hilaren 18a baino lehen, eta irabazlearen izena datorren asteartean, hilak 22, kaleratuko dugula. Irabazleak Tolosako Denak tabernan lau lagunentzako afaria eskuratuko du. Animatu eta parte hartu! HITZA

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurrak**

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** hitza info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe, atzea, 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: _____

•NA: _____

•Lanbidea: _____

•Jaioteguna: _____

•Helbidea: _____

•Herria: _____

•P.K.: _____

•Tel.: _____

•Posta elektronikoa: _____

•Kontu zenbakia: